

Biharamuna

Aitor dut: idaztera eseri eta ez nago lasai. Tarteka, atzera begiratzeko imintzioa egiten dut. Edozein soinuk nire mesfidantza pizten du. Minduta daukat lepoa dagoeneko. Baina, adi nagoen arren, ez dut inor topatu nire giblean. Hutsik dago langela. Idazlea bere bakardadean.

Neure barnean, ordea, kontua bestelakoa da. Hor biltzen dira, ordenarik gabe bildu ere, poliziak, arbitroak, agitadoreak, lausengariak eta auskalo zenbat presentzia gehiago. Zuek ere bai, Juanjo eta Eider. Eta baita txoko honetako balizko irakurleak ere. Zaila da beraz nire benetako ahotsa entzutea hainbeste garrasi, iruzkin, aurreiritzi eta adierazpenen artean, zaila da jakitea nola idatziko nukeen barruan inor izango ez banu, inor kontuan hartuko ez banu. Eta zure lagunak bezala, Eider, ezingo dut inoiz jakin.

Argi daukat, ahots-anabasa nire inseguritatearen emaitza baino ez dela. Nire pentsamendua-aren ahulaz ohartzen naizela eta horrek kolokan jartzen dituela nire adierazpen publiko oro. (Horra hor frogara: nitasunaren gorazarre egin nuen orain dela aste batzuk, eta orain, nitasunaren gaineko deskontua ezarri eta besteen eraginaz ari naiz leku berean, lotsarik gabe). Zuei ez zaizue gertatzen, ala?

Egia esanda, norberaren buruarengan seguritate handia behar da ETAREN aurka mintzatzeko beste arrazoirik ez dagoela esateko, ez bada CIAREN konspirazio baten parte izatea edo ordainsari mamitsua jasotzea, edo besterik gabe, legalitatearen mugaren alde honetara gaudela frogatzeko nahia. Horregatik egiten dutenak egon badaude, argi dago, baina barneko anabasatik kontzientziaren ahots argiari jarraituz egiten duena ere egongo da, nik uste. Frogarik ez daukat, ordea.

* * *

Inseguritatearen harira, batzuetan galdetu izan diot neure buruari ez ote dudana euskara



INIGO AZKONA

Katixa Agirre

Rodriguez

Olasagerrre

espresio bide aukeratu hain zuzen ere barruko zalaparta murrizteko, apaltzeko. Nire ama –eta aita– hizkuntza gartzelania izanda ere euskaraz idazten dut. Faktore askok hartuko zuten parte erabaki horretan, kasualitateak berak ere bere rola jokatuko zuen, baina faktore horien artean diskrezio nahi bat ere antzematen dut.

Alegia, pertsona gutxik eza- gutzen duen kode batean ari naiz, beraz, idatzitakoaren oihartzuna –positiboa, baina negatiboa batez ere– hutsaren hurrengoia izango da –kuantitatiboki behintzat–. Gainera, nire hartzailearen ideia zehatza izan dezaket, nire testuinguru berean egongo da seguru asko, eta idatzitakoa testuinguru hura kontuan hartuta irakurriko du. Lasaigarria da. Barruko ahotsak asko murrizten dira horrela. Polizia erdaldunekin kezkatzeari utz diezaiokegu horrela.

Nire buruarengan konfiantza gehiago banu, agian momentu honetan nire blogeko post bat hasten ibiliko nintzateke: “*Lo confieso: me he sentido a escribir bastante inquieta*”. Eta gero mundu globaletik iritsitako erantzunen zain geldituko nintzateke. Baina kasu honetan ere, ez dago jakiteko modurik. Bizitza paraleloak imajinatu besterik ezin ditugu egin. Bizi, honako hau bizi behar dugu.

* * *

Aitor dut, beste behin: ez nago eroso gaur. Hauteskundearen biharamunean eseri naiz hau idaztera, jakinda ezin dudala hauteskundeetako buruz ezer idatzi: gaurko hausnarketak zaharrak izango dira letra hauek zuengana iristen direnerako. Eta gaurkotasanik galtzen ez duten kontuetarako ez daukat gorputzik, zer nahi duzue. Horregatik jo dut euskararen gaira. Gure artean, gai aseptikoa eta guztiok batzeko modukoa. Ez nago eroso gaur eta kariño apur bat eskertuko nuke. ■

Gaurkotasanik galtzen ez duten kontuetarako

ez daukat gorputzik. Horregatik jo dut euskararen gaira.

Gure artean, gai aseptikoa eta guztiok batzeko modukoa.

Ez nago eroso gaur eta kariño apur bat eskertuko nuke